

SAGARDUN



PASTAIN

PARTZUERGOA

**Astigarragan 2003ko apirilaren 29an
kontsorzio misto bat eratu zen,
sagardoa soziokulturalki
sustatzeko helburuarekin.**

Partzuergo hau irabazi asmorik gabea da eta izaera publiko zein pribatu desberdinetako entitateek osatzen dute. Honako jarduerak garatu ditzake :

- * Sagardoarekin lotutako gaien artxibo, liburutegi, hemeroteka eta antzeko zerbitzuak sortzea.
- * Sagardoaren historiarekin zerikusia duten ondasun historikoak edo kulturalak jasotzea, katalogatzea eta artatzea.
- * Sagardoarekin lotutako agiri literarioak, ikonografikoak eta informatikoak bildu, antolatu eta artatzeko beharrezkoak diren programak, sistemak, artxiboak eta abar sortzea.

- * Sagardo hobeto ezagutzera eta behar duen sustapen soziokulturala ematera bideratutako ikastaroak, batzarrak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea eta bultzatzea.
- * Baliabide materialak hedatzea, bidezko datu-base, argitalpen, erakusketa eta antzeko jardueren bidez.
- * Bidezko azterketak eta ikerlanak egitea eta hirugarren pertsonen edo entitateen burutzen dituzten ikerlanetan ere parte hartzea.
- * Sagardoaren Eguna antolatzea, sagardoaren sustapen soziokulturalarekin zerikusia izan dezaketen beste hainbat ekitaldi bezalaxe (uztaren aurkezpena, sagardo berriaren aurkezpena, txotx denboraldiari hasiera ematea, eta abar).
- * Web orria sortzea, Partzuergoak burutzen dituen jardueren hedabide izan dadin.
- * Sagardoaren produkzio, merkaturatze eta abarren prozesu desberdinekin lotutako prestakuntza ikastaroak antolatzea edo babestea.
- * Turismo arloan, sagardotegietara bisitaldi gidatuak antolatzea.
- * Astigarragan sagardoaren inguruan egin edo egiten diren azterlanak, gidak eta abar eratzea, argitara ematea eta banatzea eta horien antzekoak edo osagarriak izan daitezkeen jarduerak burutzea.
- * Sagardoaren sustapen lanetan diharduten beste entitateei lankidetzak ematea.
- * Era guztietako argitalpenak egin eta banatzea, esate baterako, aldizkariak, egunkariak, bideoak eta abar.
- * Erakunde publiko zein pribatuei aholkularitza ematea.
- * Astigarragako sagardoaren sustapen soziokulturalaren lagungarri izan daitezkeen bekak eta bestelako laguntzak ematea.
- * Partzuergoaren xedea betetzen lagun dezaketen ekimen pribatu zein publikoekin lankidetzan jardutea.
- * Erakunde publiko edota pribatuekin bidezko itunak, hitzarmenak eta abar sinatzea, sagardoarensustapen soziokulturalaren mesederako jarduerak burutu ahal izateko.
- * Sagardoetxea sortzea.
- * Aipatu jardueren antzeko beste hainbat, Partzuergoaren xedea lortzera bideratuta badaude.



Hona hemen eraketa honetan parte hartu dutenak:, Astigarragako Udala, Garlia Astigarragako sagardo elkarte, Gure Izarra elkarte, Xagu xar astialdi taldea, Norberto Almandoz musika eskola, Astigar euskal ohiturazale elkarte, eta Mundarro elkarte.

SAGARDUN PARTZUERGOA

"Garlia" Astigarragako sagardogile elkarteko lehendakariarekin, Joxe Anjel Goñirekin, hitz egin dugu partzuergo berri honi buruz.

Nola sortu zen Garlia elkartea?

Lehendik ere elkartzen ginen sagardoari buruzko festa batzuk antolatzeko eta, Udalaren babesa izaten genuen. Partzuergoa osatzeko elkarte bezala aurkeztu behar genuenez, bertan funtzionatzeko erabiliko da. Momentuz, zortzi bat inguru gara kide, baina aurrerantzean, nola dabilen ikusita, zabaltzen joango dela espero dugu.

Ondo ulertu al da kontsortzio honen osaketa?

Beti izaten dira jelsiak, denborak esango du nondik nora jo behar den eta hobeto ulertuko da. Gipuzkoako beste herrietakoek eragozpenak jarri ditzakete, protagonismoa geureganatuko delakoan, baina lana ondo egiten bada, denontzat izango dira etekinak.

Kudeatzaile bat kontratatuko da. Zer lanekin hasi beharko du?

Guk esan beharko diogu zer nahi dugun. Pentsamoldeak aldatu behar ditugu eta gure marka saldu, plan bat egin produktua ezaguna izan dadin. Pertsona irekia izan beharko du, denekin hitz egin eta ondo moldatzen dena.

Sagardoa gure merkatutik kanpo ateratzeko, bai kalitatea bai marketina jorratu behar dira. Produktu ona ateratzeko, baserrietatik hasi behar da, sagar motak ikertu eta plan batzuk bultzatuaz, gero hori dena ondo landu ezagutarazteko.

Sagardoetxea sortzea da helburuetako bat?

Garrantzi handia izango du, laborategi bat kokatzeko, kata gela, egoitza, museoa...

Urte asko pasa ditugu honen atzetik eta gure pentsamoldeak ireki beharrean gaude, oso aspaldiko mentalitatearekin baikaude oraindik.

